







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Energia elektrikoa

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %0,5 egin zuen behera otsailean, 2016. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %1,8 jaitsi zen eta etxekoan %2,8; hirugarren sektorean edo zerbitzuetan, berriz, %6,1 igo zen. Azken hamabi hilabeteetan metatutako kontsumoak %3,9 egin zuen behera, aurreko epealdiarekin alderatuta; etxeko sektorean %1,3 igo zen eta zerbitzu arloan %1,6; industrian, ordea, %7,8 jaitsi zen.

Industrian gora egin zuten sektoreak, besteak beste, hauexek izan ziren: garraioideen eraikuntza (+%7,8), burdinazkoa ez den metalurgia (+%6), kautxuzko eratorriak (+%5) eta sektore kimikoa (+%3,8). Behera egin zuten sektoreak, gehienbat, siderurgiaren (-%20,6) eraginez izan zen.

Gas naturala







Otsailean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %9,8 egin zuen behera, 2016ko otsailean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %8,1 igo zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %11,5 jaitsi zen. Azken hamabi hilabeteetan metatutako kontsumoak %3,2 egin du behera, aurreko epealdiaren aldean, (-%17,8 CCTT-n eta ez da aldaketarik izan gainerako sektoretan).

Erregaiak garraioan

Urtarrilean, garraioan erregaien kontsumoa %11,7 igo zen, 2016. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak %7,2 egin zuen gora eta A gasolioarenak %12,1. Azken hamabi hilabeteetan metatutako kontsumoa %5,8 igo zen, 2016koarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %2,5 egin zuen gora eta A gasolioarenak %6,2.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAEtik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Otsailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 97,6 milioi kupel izan zen (2016ko otsailean izandakoaren aldean, %1,2 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %1 egin zuen gora kontsumoak, 14,2 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3,4 egin zuen gora, eta 12,6 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, ordea, %2,5 jaitsi zen, eta 19,2 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, oro har, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,6 igo da, Txinan %3,4, AEBetan %0,3 eta Europar Batasunean %2,1.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %0,8 egin zuen gora otsailean, 2016ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Azken hamabi hilabeteen metatutako kontsumoak %7,1 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen otsailean, %4,4, 2016ko otsailean izandakoaren aldean. Urte mugikorraren kontsumoak %1,2 egin zuen gora. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %4 egin zuen gora urtarrilean, 2016ko hil berean izandakoarekin konparatuta; gasolinaren kontsumoa %2,1 igo zen eta gasolioena %4,4. Azken hamabi hilabeteen metatutako kontsumoak %3,6 egin zuen gora, 2016. urteko epealdi beraren aldean, (%2,7 igo zen gasolinena eta %3,8 gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %14,3 egin zuen gora urtarrilean, eta urte mugikorraren kontsumoak %7,6 egin zuen gora, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EIAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 55,5\$ (52,1€) izan zen otsailean. Urtebetean prezioak %67,1 egin zuen gora (%74,3 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 51,7€/MWh izan zen otsailean; duela urtebete zegoenaren aldean, %88,1 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 17,7 €/MWh izan zen urtarrilean, eta %10,1 igo zen, 2016ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Otsailean, EGIX-en prezioa 16,9 €/MWh izan zen (2016ko otsailean izandakoarekin alderatuta, %35,7 igo zen). Spot merkatuetan, otsailean Henry Hub-en prezioa 9 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 28,2 €/MWh (2016ko hil horretan izandakoaren aldean, %49,7 eta %33 egin zuten gora, hurrenez hurren).

Erregaiaren prezioa

EAEn, urtarrilean, gasolioaren prezioa 1,11 €/l izan zen (urtebetean %21 igo da), eta gasolinarena 1,22 €/l (urtebetean %12,1 egin du gora).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 5,02 €/t izan zen otsailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %1,8 jaitsi da.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.